

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

---



Gure proiektuaren alderdi positibo askotako bat gure bezero potentzialak edozein adinetakoak izan daitezkeela da. Izan ere, Zumaia inguruan bizi den edozein adinetako pertsona izan liteke gure bezeroa. Pertsona hauek energia izatea eta hau erabili nahia da gure nahi bakarra.

Hala eta guztiz ere, gehien erakarri nahi ditugun bezeroak haurrak edota gazteak dira, hauek dira eta energia gehien dutenak eta guk eskaini nahi ditugun dantza saioetan gehien mugituko diren pertsonak. Gazte hauen multzoa 10etik 50 urtera kokatzen dugu guk, adin hauetako pertsonak dutelako gure plaka zinetikoetan energia sortuko duten mugimendu koordinazio nahiz pisu egokiena. Hala ere, gazteagoentzat edota helduagoentzat saioak eskainiko ditugu, garrantzitsua iruditzen zaigu eta dantza bezalako jarduera dibertigarri batekin mugimendua sustatzea gure herriko gazteenen nahiz helduenen artean.

Gainera, haurrentzako klase eskusiboak eskainiz gurasoentzako aisialdirako tarte bat ere eskaintzeko gai garenez oso guraso lanpetuak dituzten haurrak gure bezeroak izan litzateke. Dantza gustatzen zaion edozein ume ere, noski, bezero potentzial egoki bat litzateke. Uste dugu dantza, motibazio egokiarekin, ia edozein pertsonak duela gustuko, beraz gure merkatua ez dago hain segmentatuta alderdi hortatik, edozein gaztetxok ahal duelako sentitu interesa gure saioekiko, beraien artean ezagutzeko gune sozial bat ere da eta.

Hala ere, badakigu adinak ez duela beti gure energia baldintzatzen. Honen adibide dira 70 urte bete ostean beraien dantzarekiko maitasunaz jabetzen diren hainbat pertsona. Barrutik gazteak diren pertsona heldu edota adindu hauek ere erakarri nahi ditugu gure saioetara, ziur gaude eta, agian gaztetxoek bezain beste mugitu gabe, nahikoa dela beraien oinek sortutako argia. Helduenen mugimenduan eginiko energia ez balitz ere nahi bezain bestekoa, proiektu sozial moduan ere planteatzen dugunez gure proiektu hau, badakigu laguntzarekin dantzatu ahal duten herritar edadetuenei ere gure saioak eskaintzea gure betebeharra dela herritar moduan.

Hau guztia kontuan hartuz, hasieran esan bezala, adin guztiko pertsonak gure bezeroak izan litzatekela diogu, beraz, merkatua ez legoke oso segmentatuta alde hortatik aztertuz gero. Bestalde, gure zerbitzuak eskainiko dituzten irakasleen soldatak, espazioa bera eta mantentze-lanak ordaindu behar ditugunez, dantza saioetarako tasak ordaindu beharko dira. Honek gure bezeroak aisialdirako, kirolerako edota umeentzako eskolaz kanpoko ekintzetako diru kopuru bat ordaintzeko gai diren pertsonak direla suposatzen du.